

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE POLITIKEN SAILA

1/2022 Foru Agindua urtarrilaren 4koa. Iragartzea, ohiz kanpoko azterketa bat egingo zaiela COVID-19k edo osasun-agintariek ezarritako neurriek eragindako pertsoneri, baldin eta 2018., 2019. eta 2020. urteetarako lan-eskaintza publikoetatik eratorritako hautaketa-prozesuetako lehen ariketako probak ezin izan bazituzten egin

2018., 2019. eta 2020. urteetako enplegu publikoaren eskaintzetatik eratorritako hautaketa-prozesuetako lehen ariketako probak egiteko protokoloa eta irizpideak onartzen dituen abenduaren 16ko 152/2021 Foru Aginduaren eranskineko 6. atalaren arabera:

1. Hautaprobak egin ezin dituzten hautagaiak egoteko aukera aurreikusten du, arrazoi hauen-gatik:

- Mediku elkargokide baten iritziz, COVID-19rekin bateragarriak diren sintomak izatea.
- Gaixotasuna diagnostikatu bazaie eta medikuak agindutako isolamendu-aldia amaitu ez bada.
- Etxeko berrogeialdian egotea, osasun-agintaritzak aginduta, kontaktu estua izan dutelako COVID-19ren sintomak edo diagnostikoa dituen pertsonaren batekin.

2. Betebeharra ezartzen du:

- Aipatutako egoeraren batean dauden izangaiek beren egoeraren berri eman behar dute, jakin bezain laster, eta, betiere, azterketa egiteko eguna eta ordua baino lehen.
- Eskura izan bezain laster aurkeztu behar dira egiaztagiria, gehienez ere bi egun balioduneko epean, egoeraren berri ematen den egunetik zenbatzen hasita, balorazioa egiteko eta, hala badagokio, azterketaren deialdia egiteko geroagoko data batean.

3. Azterketa egiten hasi ondoren jakinarazitako egoerak edo egoeraren berri eman eta bi egun baliodun igaro ondoren aurkeztutako egiaztagiria ez baloratzea zehazten du.

Ikusirik izangai batzuek ezin izan dituztela egin 2018., 2019. eta 2020. urteetarako enplegu publikoaren eskaintzetatik eratorritako hautaketa-prozesuetako lehen ariketako probak, abenduaren 16ko 152/2021 Foru Aginduaren 6. atalean aipatutako arrazoiak direla medio, eta lehia askearen, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak eta hautaketa-prozesuaren garapen normala bermatzeko, Epaimahai Kalifikatzaileak aparteko azterketa bat egitea erabaki du.

Aurrekoari atxikiz, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea 2018., 2019. eta 2020. urteetarako lan-eskaintza publikoetatik eratorritako hautaketa-prozesuetako lehen ariketako aparteko azterketa egiteko onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda (I. eranskina).

Bigarrena. Baztertutakoek edo argitaratutako datuen multzoan akatsen bat nabaritzen dutenek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte eta, hala dagokionean, egindako akatsak konpontzeko eskatu, onartutako zerrenda Gizarte Ongizaterako Foru Aginduaren enplegu publikoaren atarian (<http://www.araba.eus/ifbs/portalempleo>) argitaratu eta hurrengo hamar egun baliodunen barruan.

Hirugarrena. Iragartzea, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2018., 2019. eta 2020. urteetarako enplegu publikoko eskaintzei dagozkien monitore, gizarte-langile eta psikologo lanpostuetan sarrera libreko sistemaren bidez karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdien lehen ariketari dagokion aparteko azterketa egingo dela. Azterketa hori 2022ko urtarrilaren 14an egingo da, 9:00etan (monitore eta psikologoak), eta 12:00etan (gizarte-langileak); La Blanca eraikinean, Probintzia plaza 4, barrualdea, Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 4a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ

I. ERANSKINA

ONARTUAK, MONITOREAK

72853191R

45168275R

72725588W

16297648D

72830267P

PAJ757444

72736152D

44675660T

72459689Y

72741540S

72758942Y

BAZTERTUAK, MONITOREAK

72842987D (1)

ONARTUAK, PSIKOLOGOAK

72755675M

78999608J

44680374E

73122004J

48335583W

72748763Q

BAZTERTUAK, PSIKOLOGOAK

72853576H (2)

72828398W (3)

ONARTUAK, GIZARTE-LANGILEAK

72741540S

72758942Y

72504174D

72843804K

16297127V

16281666N

72843375Y

30648172M

30652034A

72738338X

72722485G

BAZTERTUAK, GIZARTE-LANGILEAK

44673059K (1)

78904480J (1)

30668382K (1)

1. Egoeraren berri ematea azterketa egingo den egunaren eta orduaren ondoren.
2. Abenduaren 16ko 152/2021 Foru Aginduan ezarritako epetik kanpoko egoera egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezten du.
3. Bere egoera egiaztatzen duen justifikaziorik eza.